




**CIE** Automotive


Jokabide-kode profesionala

---

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikuspena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	2 / 14

## Aurkibidea

1.	Sarrera .....	3
2.	Jokabide-kodearen helburuak .....	3
3.	Aplikazio-eremua.....	3
4.	Jarrera-gidalerroak .....	4
4.1	Etikaren eta legearen araberako jardura .....	4
4.2	Pertsonen eta gizartearen errespetua.....	4
o	Pertsonak.....	4
o	Bezeroak.....	5
o	Gizartea.....	5
o	Akzionistak.....	6
o	Sektorea.....	6
4.3	Osasuna eta segurtasuna .....	6
4.4	Administrazioarekin eta hirugarrenekin den harremana.....	7
o	Administrazio Publikoa eta erakunde arautzaileak.....	7
o	Korrupzioa eta iruzurra saihestea .....	7
o	Opariak eta onura pertsonalak.....	8
o	Interes-gatazkak .....	8
o	Negozioko enpresa elkartuak.....	9
o	Hornitzaileak.....	9
o	Finantzaileak.....	9
4.5	Informazioaren gardentasuna, integritatea eta konfidentzialtasuna .....	9
4.6	Zerga-betebeharrak eta funts publikoen erabilera.....	10
4.7	Baliabideen eta aktiboen erabilera .....	11
4.8	Informazioaren babesa.....	11
4.9	Jabetza intelektuala eta industrial.....	12
5.	Interpretazioa .....	12
6.	Betearazpena.....	12
7.	Jokabide-kodearen irregulartasunei edo ez-betetzei buruzko jakinarazpenak eta kontsultak kudeatzeko prozedura.....	12

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	3 / 14

## 1. Sarrera

CIE Automotive, S.A. (aurrerantzean, “**CIE Automotive, S.A.**” edo “**Taldea**”) talde industrialia espezialista da balio erantsi handiko prozesuetan eta bere jarduera automozio-osagaien negozioan garatzen du.

CIE Automotive, S.A. enpresaren jardueraren balio nagusiak hauek dira:

1. Kanpoko eta barneko bezeroak orientatzea eta zerbitzu-jokabidea.
2. Pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzea, bere ekimen-gaitasuna, sormena eta berrikuntza, parte-hartzea eta taldean lan egitea.
3. Helburuak lortzeko gaitasuna eta balio erantsia.
4. Jarrera positiboa aldaketen aurrean eta etengabe hobetzean.
5. Erantzukizuna eta pertsonen integritatea ongi egindako lanaren konpromisoan.
6. Ingurumena errespetatzea, edozein inpaktu minimizatzeko lan egiten.
7. Gardentasuna, gure jardueraren datu esanguratsu guztiak publiko eginez.

Taldearen jokabideren oinarrizko balio horien osagarri gisa, CIE Automotive, S.A. enpresaren administrazio-kontseiluak ulertu du egokia dela gure **Jokabide-kode profesionala** (aurrerantzean, “**Jokabide-kodea**” edo “**Kodea**”) osatzen duten jokabide-gidalerroak onartzea. Kode horren bidez, agerian uzten dira, CIE Automotive, S.A. enpresako kide gisa, gure portaera gidatzeko balio korporatiboak, baita Taldean erabakiak hartzeko unean aintzat hartu beharreko jokabide-gidalerroak eta jarduera-lerro orokorrak.

## 2. Jokabide-kodearen helburuak

Jarduera-kodearen helburua da **deontologia-gida batekin eta jarduera-printzipioekin hornitzea kontseiluko kide, zuzendaritzako kide, langile eta Taldea osatzen duten enpresa guztietako langileei** (aurrerantzean, “**pertsonak**”), eta bertan lan egitean beren jarduera zein baliok eta konpromisok zuzendu behar duten zehazten du.

Era berean, Kode hau **interes-taldeek eta, oro har, gizarteak eskatutako exijentziak** bere egiteko xedez egin da, Taldean jarritako konpromisoaren eta konfiantzaren hartzaile izaten jarrai dezaten.


Exijentzia horiei erantzun bat ematea da merkatuan dugun izen onaren gakoetako bat. Erakundeko pertsona bakoitzak lan egiteko duen moduaren eta bere egunerokoan talde horiekin sortutako harremanen arabera eragin dezake dezake kode horretan. Hori dela eta, CIE Automotive, S.A. langileen esku dago izen on hori finkatzea gardentasunarekin, objektibitatearekin, integritatearekin, erantzukizunarekin, zintzotasunarekin eta errespetuarekin jardunez.

Jarraipen orokorrak ziurtatzen du emaitzak legeak errespetatuz eta Taldeak barnean eta kanpoan lortu eta transmititu nahi dituen printzipio eta balio etikoen arabera lortuko direla, derrigorrez bete beharreko arau bihurtuz, zuzenean edo zeharka, Taldearen izenean edo haien ordezkapen gisa jarduten duten pertsona guztientzat.

## 3. Aplikazio-eremua

Portaera-kode hau derrigorrez bete behar dute Taldea osatzen duten pertsona guztiek, salbuespenik gabe. Pertsona guztiek ezagutu eta bete behar dituzte jokabide-arau hauek, eta inongo barrutitan ez da legea betetzea salbuetsita geratzen hura ez ezagutzeagatik.

Era berean, CIE Automotive, S.A. enpresak bultzatuko dute bere enpresa komertzial elkartuek (*joint-ventures*, enpresa-hornitzaileak, bezeroak, kontratistak eta enpresa-laguntzaileak) Kode honen bidez

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	4 / 14

jardutea eta bere estandarrekin koherenteak diren programa etikoak aplikatzea. Taldeak dagozkion neurriak hartuko ditu ziur badago bere gidalerroak edo kontratu-betebeharrak ez direla bete.

## 4. Jarrera-gidalerroak

### 4.1 Etikaren eta legearen arabera jarduerak

CIE Automotive, S.A. enpresak publikoki jakinarazten du erabat baztertzen duela edozein legez kanpoko edo delituzko praktika, eta idatzi jasotzen du praktika horiek guztiz debekatuta daudela, salbuespenik edo mugarik gabe, erakundearen. Horrenbestez, konpromisoa hartzen du bere baitako araudia eta indarrean den legeak betetzen lagunduko duten barne-prozedurak garatzeko.

CIE Automotive, S.A. enpresako parte diren pertsona guztiek:

- ✓ Bere funtzioa gauzatu behar dute erakundearen baitan, indarrean diren legeak zorrotz betetz, eta zintzotasunaren eta integritate moralaren irizpideen arabera etikoki onargarriak ez diren edozein praktika saihestuz.
- ✓ Jarduera-arlo bakoitzari dagokion Taldeko gidalerro, prozedura eta araudi guztiak bere gain hartu, bete eta errespetatzea.
- ✓ Argi eta modu gardenean jardutea, ekintzetako bat ere ezingo dela iruzur gisa interpretatu ziurtatuz.

Gainera, Taldeak konprometituta dago 2015ean Nazio Batuen Erakundeak onartutako Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 betetzeko, eta hori dela eta, enpresa-estrategian gehitu ditu Garapen Jasangarriaren Helburuak.

### 4.2 Pertsonen eta gizartearen errespetua


#### ○ Pertsonak

- ✓ Jazarpenik eta diskriminaziorik gabeko lan-giroa

CIE Automotive, S.A. enpresak konpromisoa hartzen du sexu-jazarpenik edo bestelako jazarpenik gabeko lan-giro bat izateko, bai langileen artean edo langile eta hornitzaile baten artean eta alderantziz, eta pertsona guztiak berdinean eta duintasunez tratatzen direla ziurtatzeko konpromisoa ere hartzen du. Beraz, ez du onartuko arrazarekin, kolorearekin, sexuarekin, adinarekin, erlijioarekin, jatorri etnikoarekin edo geografikoarekin, desgaitasunarekin edo bidezkoa ez den beste arrazoi batekin lotutako diskriminazio-ekintzarik. Alabaina, pertsonak postu jakin baterako bere gaitasun edo kualitate profesionalen arabera bereiztea ez da diskriminazio-kasu bat.

- ✓ Giza eskubideak errespetatzea

CIE Automotive, S.A. enpresak, jarduerak garatzen duen lurralde guztietan aplikagarri den legedia betetzeaz gain, konpromisoa hartzen du nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatzea, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean adierazten diren eskubideak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Aitortzan xedatutako eskubideei buruzko printzipioak barne. Gainera, CIE Automotive, S.A. enpresak Munduko Hitzarmeneko 10 printzipioa betetzen ditu:

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO  JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	5 / 14

✓ Lan-kontziliazioa

Taldeak pertsonen lan-bizitza eta familia-bizitza errespetatzen ditu eta bien arteko oreka hoberena eta lan-erantzukizunak errazten dituzten kontziliazio-gidalerroak bultzatuko ditu.

✓ Aukera-berdintasuna

Taldearen oinarritzko printzipio bat da aukera berak bultzatzea eta eskaintzea lan lortzeko eta profesionalki promozionatzeko, merituan oinarritutako kultura korporatibo bat bultzatuz.

○ Bezeroak

CIE Automotive, S.A. enpresaren politika enpresa-bezeroei kalitate handiko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea da, prezio egokietan eta hitzartutako entrega-epeen konpromisoak betez.

Hori dela eta, ezartzen diren harreman profesional guztiak konfiantzan eta elkarren arteko errespetuan oinarritu behar dira. Printzipio horretan oinarrituta, jarduerak eta erabakiak prozedura-, estandar- eta irizpide-eskakizun objektiboei jarraiki gauzatuko dira, beti inpartzial eta zuzen jokatzuz, justifikatu gabeko erabakiak edo aukera-berdintasunaren aurka egiten duten erabaki bidegabeak hartzea saihestuz. Horretarako, xede gisa hartzen da kalitate-maila altuenak lortzea, zerbitzua emateko bikaintasuna eta konfiantzan eta elkarren arteko errespetuan oinarritutako epe luzerako harremanak garatzea.

Enpresa-bezeroekin diren kontratuzko harremanetan gardentasuna eta informazioa nahikoa, egiazkoa, bidezkoa eta egokia izatea erraztuko dira.

○ Gizartea

✓ Dohaintzak eta gizarte-educiko proiektuak

CIE Automotive, S.A. enpresak, harremana duen komunitateen garapenarekin eta ongizatearekin du konpromisoa aintzat hartuta, aktiboki laguntzen du hura garatzen dohaintzak eginez eta gizarte- eta kultura-educiko proiektuen bidez.

Dohaintza bakoitzak beharrezko baimenak izan beharko ditu eta Taldearen kontularitza-erregistroetan agertuko beharko dira. Guztiz debekatuta dago dohaintzak edo beste finantza-ekarpenak egitea legez kanpoko jarduerak dituzten edo haiekin, nolabait, lotutako erakundeei.


✓ Ingurumena zaintzea

Ingurumena zaintzea eta babestea ezinbesteko balioak dira CIE Automotive, S.A. enpresan, eta uneoro bete behar da jarduten duen herrialdeetako ingurumen-araudia. Gainera, konpromisoa hartzen du ingurumen-inpaktu negatiboak minimizatzeko jarduerak egiteko.

Horren ondorioz, Taldea osatzen duten lagun guztiek ingurumena zaindu beharko dute, natura-baliabideak modu arrazional batean erabiliz eta kontrol-mekanismo guztiak euren eskura jarritz CIE Automotive, S.A. enpresaren jarduera industrialaren prozesuetatik eratorritako ingurumen-inpaktua minimizatzeko.

✓ Eraikuntza

CIE Automotive, S.A. enpresan antolakuntza jasagarri bat egiteko konpromisoa hartzen dugu. Zentzu horretan, konpromisoa hartzen dugu gure eraikuntza-lanak indarrean diren legeei jarraikiz egiteko.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	6 / 14

Adierazitako arrazoiengatik, guztiok ziurtatu behar dugu egiten diren eraikuntza-lanek udaleko, probintziako, erkidegoko eta estatuko legeak betetzen dituztela.

✓ **Kontrabandoaren aurkako borroka**

CIE Automotive, S.A. enpresan konpromisoa hartzen dugu produktuen inportazioari eta esportazioari buruzko legedia errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta horretarako pertsonen arteko jardunbide onak bultzatzen ditugu.

○ **Akzionistak**

CIE Automotive, S.A. enpresaren asmoa akziodun ororentzako balioa etengabe eta modu jasangarrian sortzea da eta akziodunak osatzen duten elementu guztien interesak kontziliatuz.

CIE Automotive, S.A. enpresak konpromisoa hartzen du informazio egokia ematea akziodun guztiei, modu gardenean, osoa, egiazkoa eta zehatza, eta taldearekin komunikatzeko tresna dinamikoak ezartzea.

CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten pertsonen jarduna gure akziodunen inbertsioen balioa babestera eta maximizatzen bideratuta dago, egindako inbertsio horri arrazoizko errentagarritasuna lortuz.

○ **Sektorea**

CIE Automotive, S.A. enpresak konpromisoa hartzen du lehia defendatzeko legea zorrotz mantentzeko. Era berean, Taldeak konprometitzen da bere enpresa-helburuak bitarteko etikoak, legezkoak eta legez aitzakiarik gabe lortzea, eta bidezkoa eta zuzena den lehia-erregimena aplikatzera, aplikagarri diren arau juridikoak betez beti.

CIE Automotive, S.A. enpresak ez du parte hartuko une honetan lehiakide dituen edo balizko lehiakide izan litezkeenekin elkarriketetan, akordioetan, hitzarmenetan, proiektuetan edo aliantzetan, prezioari, merkataritza-baldintzei, eskaintzei, merkaturako banaketari edo lehia librea eta irekia murrizten duen edo murriz dezakeen beste edozein jardueretan.


### 4.3 Osasuna eta segurtasuna

CIE Automotive, S.A.k konpromiso irmoa erakusten du segurtasunari eta osasunari buruzko barne-araudiak eta -protokoloak betetzeko, Taldeko jarduerak eragin diezaiekeen lagun horiek babestuz.

Zentzu horretan, Taldeak bere jarduerak bideratzeko unean segurtasun-maila handiena lortzen saiatzen da prozesuetan, instalazioetan eta zerbitzuetan, eta arreta berezia jartzen du Taldea osatzen duten pertsonengan ez ezik baita bazkideengan, kontratistengan, enpresa-hornitzaileengan, bezeroengan eta tokiko ingurunean ere. Gainera, herrialde bakoitzean indarrean dauden legedian aurreikusten diren prebentzio-neurriak hartzen ditu eta bere instalazioetan edo lantokietan lan-zerbitzu bat gauzatu behar duen orok segurtasun- eta osasun-baldintza onenetan egiten dutela konpromisoa hartzen du.

CIE Automotive, S.A. enpresak pertsona orori beren funtzioak segurtasunez eta ingurune osasuntsu batean egiteko beharrezko baliabideak eta trebakuntza ematen dizkie. Bere aldetik, CIE Automotive, S.A. enpresetan beren funtzioak gauzatzen dituzten lagunek (bertako langileek nahiz azpikontratatuak) laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak ezagutu eta bete behar dituzte lan-arriskuak prebenitzeko eta minimizatzen xedearekin.

Azkenik, enpresaren instalazioetan debekatuta dago edari alkoholduak, estimulatuak, substantzia narkotikoak edo beste estupefaziante batzuk sortzea, kontsumitzea, saltzea, trafikatzeko edo izatea.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	7 / 14

#### 4.4 Administrazioarekin eta hirugarrenekin den harremana

##### ○ Administrazio Publikoa eta erakunde arautzaileak

CIE Automotive, S.A. enpresak edozein erakunde publikorekin, ofizialekin, autoritateekin edo horien ordezkariarekin dituzten erlazio profesionalak, nazionala edo nazioartekoak, erakunde-errespetuaren, gardentasunaren, integritatearen, lankidetzaren eta betetze etikoaren printzipioei jarraikiz egingo dira.

Taldetik pertsona guztien gehieneko lankidetzaren eta ardura bultzatzen dira, beharrezko diren ikuskaritza, eskakizun edo esku-hartzeak gauzatuz Administrazio Publikoen aldetik.

CIE Automotive, S.A. enpresak neutraltasun politikoa adierazten du eta adierazten du ez duela finantzatzen, zuzenean edo zeharka, ez Espainian ezta atzerrian ere, alderdi politikorik edo bertako ordezkari edo hautagairik. Jarduera politikoa edo publikoa gauzatu nahi dituen orok norberaren izenean egingo ditu eta lan-orduetatik kanpo.

Arau orokor gisa, debekatuta dago funtzionarioei eta agintari publikoei ordainketak egitea. Alabaina, kontuan izanda zenbait barrutitan bideratzaileei ordainketak egitea legekotzat jotzen dela lanean ari garen herrialdearen arabera, halako zerbait egin baino lehen Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Batzordearekin kontsultatu beharko da alde zuzena.

##### ○ Korrupzioa eta iruzurra saihestea

CIE Automotive, S.A. enpresak berriaz debekatzen du edozein korrupzio-, eroskeria- edo eragin-trafikoren jardunbide edo praktika bezerekin, enpresa-hornitzaileekin, merkataritza-bazkideekin eta funtzionarioekin edo erakunde publikoekin, nazionalak edo nazioartekoak izan, baita dirua zuzenean lotutakoak ere.

Hori dela eta, CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten pertsonak hirugarrenekin dituzten harremanetan ezin dute sinbolikotik harago dagoen oparirik eskaini edo onartu, baldin eta harreman komertzial, profesional edo administratibo batean lege kanpo eragiteko baliatzen dela interpreta baliteke.


Debeku horretan ez dira sartzen merkaturian ohikotzat har litezkeen gastuak edo arretak, arrazoizko zenbatekoetan, beren izaera, maiztasuna eta zenbatekoa aintzat hartuz gero. Edonola ere, hierarkian goian dagoenak baimendu beharko ditu.

Era berean, ez da onartzen ordezkari publikoei opariak, arretak edo abantaila zuzenean edo zeharka entregatzea euren eragina CIE Automotive, S.A. enpresaren mesedetan gauzatzeko helburuz. Gainera, guztiz debekatuta dago harreman pertsonal batez baliatzea agintari edo funtzionario baten gain bidegabe eragin asmoz.

Baliozko zerbait eskaintzea, promesa egitea edo entregatzea debekatuta egoteaz ez ezik, debekatuta dago ere halako zerbait eskatzea, onartzea edo jasotzea ere hirugarren baten mesedetan jarduera bat egitearen edo ez egitearen kontraprestazio gisa.

Delitu horien arloan sartzen dira beste jardunbide hauek ere:

- “Estalitako” ordainketak: funtzionario bati zuzenduta doan baliozko zerbait hirugarren batek jasotzen duenean, eta hirugarren hori lotura gisa erabiltzen denean azkenean funtzionarioak jaso dezan baliozko zerbait hori.
- Tramiteak azkartzeko ordainketak (bideratze-ordainketak): Funtzionarioek eska ditzaketen ordainketa txikiak behar diren funtzioak betetzea bizkortzeko edo horiek betetzen direla bermatzeko. Zenbait herrialdeetan ordainketa horiek arruntak dira, eta nahiz eta oro har

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	8 / 14

erabat debekatuta dituen CIE Automotive, S.A. enpresak, horrelako egoera bat gertatuko balitz, halako ordainketak egin baino lehen Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Batzordeari kontsultatu beharko litzaioke.

Taldeko edozein sozietatek ordaintzeko betebeharrak bat sortzen dion hirugarrenekin lortutako edozein akordio idatzi jasota geratu beharko da, eta dagokion zerbitzua zertan datzan azaldu beharko da. Gainera, dagokion sozietate horrekin dituen sistemak eta prozedurak bete beharko dira.

Sozietateak egin beharreko edozein ordainketa izendun txeke baten bidez edo banku-transferentzia baten bidez egingo da, eta berariaz debekatzen da eskudiruz edo ziurtatuko duen ordainagirik gabeko eramaileak kobratzeko txekeen bidez egitea. Azken bi ordainketa modu horiek ahalik eta gutxien erabili behar dira eta adierazgarriak ez diren zenbatekoetara mugatuta.

Berariaz debekatuta geratzen da, zuzenean edo zeharka, komisioak edo beste edozein ordainsari ordaintzea eskaerak edo beste edozein merkataritza-abantaila lortzeko. Aurreko horretatik kanpo geratzen dira, CIE Automotive, S.A. enpresako merkataritza-agenteez edo ordezkariak Taldeko jarduera gauzatzeko egindakoak, baldin eta indarrean dagoen legeen arabekoak badira.

#### ○ Opariak eta onura pertsonalak

Inolaz ere ezingo da onartu oparirik dirutan edo espeziatan, mailegurik, banako onurarik edo hirugarren fisiko edo juridikoen jardunbiderik CIE Automotive, S.A. enpresaren jarduerekin lotuta galerak sor baditzake interes-talde desberdinekin diren harremanen independentzian edo inpartzialtasunean.

Oparizat joko dira norbanakoarentzat abantaila gisa har litekeen edozein elementu, erakundeak ez diren opariak, komisioak edo promesa profesionalak.

#### ○ Interes-gatazkak


Erabaki eta ekintza profesionalak CIE Automotive, S.A. enpresaren onura izan behar dute oinarri, eta ez dute hausnarketa edo erlazio pertsonalek motibatu behar.

Interes-gatazkak sortzen dira CIE Automotive, S.A. enpresako parte diren pertsonen interes pertsonalak, zuzenean edo zeharka, Taldearen interesen kontrakoak direnean edo haiekin gatazkan sartzen direnean eta pertsonaren betebeharrak edo erantzukizun profesionalak gauzatea eragozten dutenenean, edo norberaren izeneko transakzio edo Taldearen eragiketa ekonomiko bat denean tartean.

Ondorioz, Taldetik kanpo dituen jardueren, familiako harremanen, ondare pertsonalaren edo beste arrazoi baten ondorioz interes-gatazka batean egon litekeela uste duen edozeinek berehala jakinarazi beharko dio Giza Baliabideen Sailari edo Betearazpen Sailari, gatazka hori dagoen ala ez azter dezan eta, hala balegokio, gatazka-interesa dagoen horrekin lotutako edozein esku-hartzetik bazter dadin pertsona hori.

Era berean, Batzorde Betearazleko kideek eta CIE Automotive, S.A. enpresarekin lan-harreman bat dutenekin lotura pertsonala dutenek (lotura pertsonaltzat joko dira ezkontideak edo pareko harremana afektiboa duten pertsonak, arbasoak, ondorengoak eta langileen eta ezkontideen anaia-arrebak, arbasoen eta ondorengo ezkontideak eta, zuzenean edo zeharka, langileak kontrolatutako edo ezarritako sozietateak) ezingo dute, beren kontura edo besteren kontura,



 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	9 / 14

sektoreko enpresen edo zuzenean edo zeharka CIE Automotive, S.A. enpresaren lehia diren enpresen onurarako zereginik edo lanik egin edo zerbitzurik eman.

Enpresa-hornitzaileekin, bezeroekin edo lehiakideekin ondare-erlazioak dituen (zuzenean edo ahaidetasun baten ondorioz) CIE Automotive, S.A. enpresako kide den orok Giza Baliabideen sailari edo Betearazpen Sailari eman beharko dio horren berri I. eranskinaren bidez.

#### ○ **Negozioko enpresa elkartuak**

Itun estrategikoei esker, CIE Automotive, S.A. enpresak hobeto ezagutzen du eta moldatzen da tokiko merkatura. Enpresa elkartuak hautatu baino lehen, dagozkion *due diligence* ekintzak egiten dira hautapen-prozesu objektibo eta inpartzial batean.

CIE Automotive, S.A. enpresaren parte diren pertsonen negozio-bazkideak hautatzeari buruzko barne-araudia bete behar dute, Taldearen itxaropenak zein diren ezagutzen lagundu behar zaie eta indarrean den araudiaren arabera jarduten, merkataritzako enpresa elkartua Taldeko estandarrek edo kontratuzko betebeharrak ez dela betetzen ari susmoen berri ematen eta tartean den auditoretza eta ikerketa guztietan laguntzen erakutsi behar zaie.

#### ○ **Hornitzaileak**

CIE Automotive, S.A. enpresa-hornitzaileekin diren harremanak elkarren arteko errespetuan eta aukera-berdintasunean oinarritzen dira.

Hori dela eta, CIE Automotive, S.A. enpresaren enpresa-hornitzaileen, kontratisten eta laguntzaileen hautapen prozesuak modu inpartzialean eta objektiboan egingo dira, eta horretarako, kalitate-, kostu- eta erantzukizun sozialeko zenbait irizpide aplikatu beharko dira, interes-gatazkak eta aldekotasunak alde batera utzita.

Taldeak "Hornitzaileen Erantzukizun Sozialaren Konpromisoa" sinatzera beharko ditu enpresa-hornitzaileak. Ere berean, enpresa-hornitzaileen, kontratisten eta laguntzaileen barne-kontrolerako sistemetako hutsuneak eta ahuleziak identifikatzeko eta zuzentzeko ikuskaritzak garatzea bultzatuko du.

#### ○ **Finantzatzaileak**


CIE Automotive, S.A. enpresak konpromisoa hartzen du akordio-baldintza onenak negoziatzeko inbertsio-beharrekin eta merkatuko baldintzekin, eta proiektuetara bideratutako finantzazioa eta baliabide ekonomikoak proiektuaren izaerarekin proportzionalak eta egokiak izango dira eta zorrotz beteko ditu finantzazio-kontratuan xedatutako baldintzak.

### 4.5 Informazioaren gardentasuna, integritatea eta konfidentzialtasuna

CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten pertsona guztiek modu argian eta gardenean jardun behar dute eta finantzazio-informazioaren eta finantzaziozkoa ez den informazioaren fidagarritasuna zaindu behar ditu, bai barne-erabilerarako baita merkatuari ematen zaion zaiona, benetako, osoa, ulergarria eta puntuala den informazioa emanez

CIE Automotive, S.A. enpresako inork ez du nahita informazioa jasotzen duenari errore bat eragin dakioken edo edota Taldearen burtsako balioari eragingo liokeen informazio okerrik edo zehaztugaberik emango.

Xede horretarako, jarraian, CIE Automotive, S.A. enpresaren **finantzazio-informazioa eta finantzaziozkoa ez den informazioa** sortzeko prozesuan parte hartzen duten pertsonen zuzendutako berriazko arau multzoa azaltzen da:

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	10 / 14

- ✓ Zintzotasunez eta arduraz jokatzea informazioa sortzeko prozesuan.
- ✓ Erregistratutako informazio guztia gauzatu diren transakzio eta eragiketetatik eratorritakoa dela eta une egokian bildu direla.
- ✓ Informazioa zehaztasunez erregistratzen dela bermatzea, eragiketa guztiak fidel islatuz.
- ✓ Informazioa indarrean diren legeen eta araudien arabera erregistratu eta gauzatzea, eta finantzazio-informazioaren kasuan, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipioen arabera.
- ✓ Taldearen gidalerroak eta prozedurak betetzea eta barne-kontrolerako sistema eraginkor bati jarraitzea.
- ✓ Informazioa egiteko prozesuan garatutako jarduerak gauzatzeko beharrezko diren ezagutzak eguneratzea eta mantentzea.
- ✓ Informazioaren fidagarritasunari eragiten dion edozein akats zuzentzea edo hura zuzentzeko eskatzea.
- ✓ CIE Automotive, S.A. enpresaren Administrazio Kontseiluaren mendeko diren Auditoretza eta Betearazpen Kontseiluari edo Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Kontseiluari jakinaraztea hemen jasotako arauak ez betetzea dakarren edozein egoera.

Hemen azaltzen diren arauak betetzeak ez du salbuesten Jokabide-kodean bildutako gainerako jarraibideak betetzea.

Informazio pribilegiatua erabiltzen duten pertsonak ez dute bere onurarako edo hirugarrenen onurarako erabili behar. Zehazki, CIE Automotive, S.A. enpresaren finantza-emaitei, bere jarduerari, planei, kontaktuei, produktuen aurkezpeni edo egiteko asmoa duen operazioei buruzko informazioa publikoki adierazi arte, Taldeari dagokion informazio pribilegiatutzat jotzen da eta isilpekoa da.

Baimendutakoek soilik izan dezakete harremana analistekin eta prentsarekin. Komunikabideei emandako edozein informazio alde aurretik baimendutako pertsona batek onartu behar du. Berdin du informazio hori finantzei buruzkoa den edo enpresen balioari buruzko hartzaileen iritzian eragin lezakeena den.


#### 4.6 Zerga-betebeharrak eta funts publikoen erabilera.

CIE Automotive, S.A. enpresak ziurtatzen du betetzen dituela zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkion betebeharrak, indarrean dauden legeen arabera (zerga-aitorpenak aurkeztea, zergak ordaintzea, zergapetutako eragiketak erregistratzea, Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzea eta abar).

Ondorioz, debekatuta dago ordainketak legez kanpo saihestea edo Taldeari ez dagozkion onurak lortzea, Ogasun Publikoaren kaltetan; baita Gizarte Segurantzaren kuotak eta diru-bilketa bateratuko kontzeptuak ordaintzea saihestea, zergen itzulketa bidegabe lortzea edo edozein kontzepturen okerreko zerga-kenkarietaz gozatzea.

Bestalde, berariaz debekatuta dago CIE Automotive, S.A. enpresaren izenean diru-laguntzak, zerga-kenkariak edo Administrazio Publikoaren laguntzak eskatzea, datuak edo edonolako onuren baldintzak CIE Automotive, S.A. enpresaren alde faltututa. Ekintza hori funtzionario edo agintari publiko batek berak proposatuz gero baztertu eta berehala jakinarazi beharko zaio hierarkian goran dagoenari.

CIE Automotive, S.A. enpresak gardentasun- eta egiazkotasun-marko baten arabera egin beharko dira eragiketak diru-laguntzen eskaera, aplikazioa eta justifikazioa, uneoro benetako eta zehatza den informazioa emango da, eta eskatutako diru-laguntzari jarraipena egin beharko zaio. Era

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	11 / 14

berean, debekatuta dago diru-laguntzak edo funts publikoak emandako helburua ez den beste helburu baterako bideratzea.

#### 4.7 Baliabideen eta aktiboen erabilera

CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten pertsona guztiek erantzukizuna du eta konpromisoa hartzen du Taldearen aktiboak babesteko kalteen, galeren, lapurreten eta erabilera okerren aurrean.

Taldeak berori osatzen duten pertsonen eskura jarritako aktiboak ez dira erabiliko erabilera pertsonal edo estraprofesionalerako eta Taldearen interesekin zuzenean lotu gabeko jardueretarako.

##### ✓ Aktiboen erabilera

CIE Automotive, S.A. osatzen duten pertsonak Taldearen aktiboen integritatea zaindu beharko dute beren funtzioak gauzatzen dituztenean, iraun dezaten eta balizko hartzaileak ez kaltetzeko.

Xede horretarako, eskura dituzten edo beren funtzioak gauzatzeko atzi ditzaketen aktiboak babestu eta zainduko dituzte eta modu egokian erabiliko dituzte entregatu zaizkion xederako. Bereziki, debekatuta dago CIE Automotive, S.A. enpresaren jabetzeko edozein ondasun besterentzea, transmititzea, lagatzea, ezkutatzea eta abar, entitate hartzaileen erantzukizunak betetzea saihesteko xedez egiten direnean.

##### ✓ Bitarteko elektronikoak erabiltzea

Bereziki, eta gailu bakoitzeko erabilera-argibide zehaztetako beste arau eta debeku batzuei kalterik egin gabe, CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten lagunek eskura jarritako baliabideak eta bitarteko informatikoak arduraz erabili behar dituzte, segurtasun- eta efizientzia-irizpideetara doituta, legez kanpokoa den edozein erabilera, ekintza edo funtzio informatiko edo CIE Automotive, S.A. enpresaren argibideekin ez datozenak baztertuz.

Halaber, debekatuta dago erabiltzea debekatuta dauden programak edo aplikazioak instalatzea edo erabiltzea, dagokion erabilera-lizentziarik ez badute edo CIE Automotive, S.A. enpresaren edo hirugarrenen sistemak kaltetu, aldatu, baliogabetu dezaketenak.


Funtzioak gauzatzeko unean pertsonak hirugarren baten aplikazioa edo sistema informatikoa atzitu behar dutenean, hirugarren horrek xedatutako erabilera-arauak bete beharko dituzte, eta guztiz debekatuta dago baimenik gabe sartzea besteen sistema informatikoetara.

#### 4.8 Informazioaren babesa

CIE Automotive, S.A. enpresa osatzen duten pertsonak erabateko konfidentzialtasuna mantendu beharko dute bere jarduera profesionalarekin lortutako informazioarekin lotuta, pertsona interesdunen berariazko onspena denean eta legez edo ebazpen judizial edo administratibo baten ondorioz behartutako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, inolaz ere ezingo dira tratatu legez edo kontratuz aurreikusi ez diren xedeetarako.

Datu pertsonalak lortzea, mantentzea, erabiltzea edo hirugarrenei komunikatzea pertsonekin errespetuzkoa den moduan egin beharko dira eta legezko xedapenen arabera.

Konfidentzialtasun-betebeharrak iraungo du, nahiz eta pertsonak zerbitzuak emateari utzi edo Taldearekin lotuta egon. Bereziki, CIE Automotive, S.A. enpresaren Administrazio Kontseiluak eta bere sozietate independenteek berezko konfidentzialtasunari erantzun beharko diote, Taldearen izenean edo haren mesedetarako egiten direnean jarduerak, funtzioak eta gaitasunak.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO          JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	12 / 14

Datu pertsonalei dagokienez, CIE Automotive, S.A. enpresak arreta berezia jartzen du langileek, bezeroek, bazkideek, enpresa-hornitzaileek, laguntzaileek, kontratistek, erakundeek eta, oro har, publikoak emandako datuen isiltasuna babesteko eskubidea ziurtatzean.

Zentzu horretan, pertsonak guztiek datuak babesteko arauak errespetatu eta bete behar dituzte eta hirugarrenek datu pertsonalak ez dituztela atzitzen bermatzeko modu aktiboan lagundu behar dute.

#### 4.9 Jabetza intelektual eta industrial

CIE Automotive, S.A. enpresaren kide diren pertsona guztiek jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak errespetatu eta mantendu behar dituzte, bereak (jabea Taldea denean edo erabilera lagata duenean) nahiz hirugarrenenak.

Ondorioz, debekatuta dago patenteen, erregistratutako diseinu industrialen edo hirugarren bat titularraren den sinbolo bereizgarri baten kopiak egitea; baita literatura-lan, lan artistiko edo zientifiko bat erreproduzitzea, plagiatzea, banatzea edo komunikatzea ere, jabeen baimenik edo dagozkion jabetza intelektualeko eskubiderik ez bada.

### 5. Interpretazioa

Jokabide-kode honetatik sortutako edozein zalantza dagokion enpresako Giza Baliabideen Zuzendaritzak argituko du.

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Kontseiluaren gainbegiratzeko eskumena egoki gauzatzeko, Giza Baliabideen Zuzendaritza Betearazpen sailarekin koordinatuta, Batzorde horri urtero bidaliko beharko dio Jokabide-kode honi buruzko txosten bat, haren interpretazioarekin lotuta hartutako erabaki eta guzti. Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Batzordeak interpretazio-irizpide orokorrak xedatu beharko ditu.

### 6. Betearazpena


CIE Automotive, S.A. enpresako inork ez du baimenik Jokabide-kode honetako jarraibideak eta xedapenak ez betetzeko, ezta hierarkian gorago dagoenak agindutakoari erantzunez egin nahi denean ere. Jokabide-kode honen arauak betetzen ez badira indarrean diren legeetan aurreikusitako zigorrak aplikatuko dira.

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Batzordea, CIE Automotive, S.A. enpresaren Administrazio Kontseiluaren mendekoa dena, da Jokabide-kodea behar bezala exekutatzeko delako gainbegiratzearen arduradun.

### 7. Jokabide-kodearen irregulartasunei edo ez-betetzeei buruzko jakinarazpenak eta kontsultak kudeatzeko prozedura

CIE Automotive, S.A. enpresak Jokabide-kodearen irregulartasunei edo ez-betetzeei buruzko jakinarazpenak eta kontsultak kudeatzeko prozedura bat ezarri du, kode hori betetzea bultzatzeko eta kodeak garatutako arauak ere.

CIE Automotive, S.A. enpresak erakundeko kide eta interes-taldeen eskura jartzen du zalantzak kontsultatu eta etika, integritatea edo Jokabide-kodean xedatutako jarraibideak hausten dituzten


 <b>CIE Automotive</b>	<b>CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO  JARRERA-KODE PROFESIONALA</b>	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	13 / 14

irregulartasunak eta ez-betetzeak jakinarazteko bideak, kanal hauen bidez eta bakoitzaren Araudiarekin:

- Kanal etiko elektronikoa: [canaletico@cieautomotive.com](mailto:canaletico@cieautomotive.com)
- Betearazpen Sailari zuzendutako posta, helbide honetara:  
Mazarredo zumardia 69, 8. 48009 Bilbo (Bizkaia), Espainia.
- Informazio eta komunikazio-kanal bat intraneten eta enpresako webgunean.

Jakinarazpen eta kontsulta guztiak era anonimoan egin ahal izango dira, eta arazoa azaldu beharko da. Jakinarazpenak eta kontsultak Betearazpen Sailak kudeatuko ditu, eta isilpean aztertu eta tratatuko dira. Esku hartzen duten datuak dagokion herrialdeko datuak babesteko aplikagarri diren legeen arabera kudeatuko dira.

Ez da onartuko, asmo onez, balizko irregulartasunen berri emateko kanal etikoa erabili duten horien aurkako errepresaliarik. Kanal etikoa izateak ez du kaltetzen balizko irregulartasuna garrantzitsuen berri emateko beste mekanismo batzuek ere sortzea.

 CIE Automotive	CIE AUTOMOTIVE, S.A. ENPRESAKO JARRERA-KODE PROFESIONALA	<b>Kodea:</b>	CIE jokabide-kodea
		<b>Berrikusp ena:</b>	03
		<b>Orrialdea:</b>	14 / 14

## I. ERANSKINA

CIE AUTOMOTIVE, S.A.

*[Edo Taldeko dagokion sozietatea]*

Instalazioko Giza Baliabideen Saileko eta Betearazpen Saileko Zuzendariari/Arduradunari.

*[leku(e)n, [data]*

Jaun/Andrea:

---

CIE Automotive, S.A. enpresakoak *[edo Taldeko dagokion sozietatekoa]*, aitortzen dut enpresa-hornitzaile/bezero/lehiakide honekin:

---

(\*) \_\_\_\_\_ harremana dudala, eta horren berri ematen dut dagozkion ondorioetarako.

*[sinadura]*

\*Jabea

\*Akzioduna

\*Ahaidetasuna